

IKUSPEGI SOZIOAFEKTIBOA

Proposatzen dizuegun metodoa aktiboa eta lankidetzazkoa da, eta norberaren esperientzian edo bizipenetan oinarriturik dago. Helburua taldean lankidetzaz bultzatzea da, eta bilaketa kolektiboa sustatzea.

Metodologia sozioafektiboak jolasa erabiltzen du ikasleen sentimenduak, gogoetak, esperientziak eta bizipenak azalera ateratzeko, pertsonaren barruan gera ez daitezen.

Horretarako, ezinbestekoa da ikasgelan giro atsegina sortzea. Lankidetzarako oso lagungarria da; izan ere, inork ezin du ikasi estresatuta, nekatuta edo urduri badago, edo motibaziorik ez badu. Espazioaren antolamendu egokiak ere giro atsegina sortzen laguntzen du.

Imajina dezakezuenek, metodologia ez-biolentoa erabiltzen duen hezitzailearen egitekoa ohikotik nahiko desberdina da. Beraren helburu nagusia zera da, bilaketa prozesu kolektiboa sustatzea. Hezitzaile ez-biolentoaren xedea ez da "hutsik dagoen baso bat betetzea", baizik eta ontzi horretan lehendik dagoena aztertzea eta basoa betetzea ikaslearen taldekideen laguntzaz.